

KONTROL MOZIOA

2020-2024 epealdirako Donostiako Euskararen Plan Orokorrari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurrera jarraitzen du 2020-2024 epealdirako hiriko Euskararen Plan Orokorraren (DEPO) diseinu lanak. EH Bilduri kezka eragiten dio DEPO berria egiteko prozesua izaten ari den gizarteratze apalegiak. Gure taldeak urratsei eta parte hartzearen nolakoari buruz otsailean egindako galderari erantzunez, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen Euskararen Kontseilu Sektorialean saio bat egin zela (iazko urrian) eta Auzoetako Euskara Batzordeetan plana berrikusteko saioak ere egin zirela. Era berean, lau eztabaida saio egin omen ziren talde espezifikoei. Ale berezia ere argitaratu zuen Irutxuloko Hitzak prozesuaren berri emateko.

Bigarren fase batean, Udal Gobernuaren asmoa omen zen aurre txostena aurkeztea Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideei, talde espezifikoei eta auzoetako batzordeei, eta maiatzeko epea jartzea ekarpenak jasotzeko, baita herritarrei ere. Plan berria prestatzeko epeak, ordea, ez ziren bete, eta Covid-19 pandemiak, gainera, epeak luzatu eta planaren edukia berrikustera behartu zuen. Horrela, Udal Gobernuak ekainaren 19ko epemuga jarri zuen Euskararen Plan Orokorrari herritarrek ekarpenak egiteko. EH Bilduk eskatu zuen epeak are gehiago atzeratzeko, herritarrei ekarpenak egitea errazteko, eta epemuga ekainaren 30a izatea adostu zuen Udal Gobernuarekin. Gainera, ikusirik Udal Gobernuak ez zuela deitu Euskararen Kontseilu Sektorialaren bilerarik aurre txostena aztertzeke, eta urratsen eskeman ez zegoela aurreikusita Euskara Kontseilu Sektorialaren bilerarik herritarren ekarpenak jasotzeko epearen ostean, EH Bilduk eskatu zion Udal Gobernuari Euskararen Kontseilu Sektorialaren bilera deitzea, eta datorren irailaren 15ean izango da.

Horiek orain arteko urratsak izan dira, baina gure taldeari kezka eragiten dio DEPO berria egiteko prozesuaren gizarteratze apalegiak. Hain zuzen ere, uztailaren 13ko batzordean zinegotziak adierazitakoaren arabera, aurreko Plan Orokorrak baino bi ekarpen berri besterik ez ditu jaso 2020-2024 epealdirakoak. Hirian euskararen garapena bideratzeko plana izanik, uste dugu ahalegin handiagoa merezi zuela.

Gainera, gabeziak ikusi dizkiogu DEPOren ebaluazioari, baita eztabaidarako baliatu den oinarrizko txostenari ere. Gure ustez, DEPOren zirriborroak ez ditu aski ongi adierazten azken urteetan hirian gertatu diren atzera urratsak, eta ez ditu aski azaltzen horien zergatiak. Adibidez, 2015-2018ko epealdiko Euskararen Plan Orokorraren “euskararen erabilera merkataritza eta ostalaritza” neurri estrategikoaren barruan, 3. neurriko “hizkuntza paisaia zaintzeko ekimenak eta laguntzak” helburu zehatzaren adierazleetako bat izan da (3.1.4.) EHUren azterketa bat, San Martin merkataritza guneko

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

hizkuntza paisaiaren ingurukoa. Ekimen hori egin denik ere ez daki donostiar euskaltzaleen gehiengoak, eta are gutxiago, zer emaitza izan dituen: euskararen ahozko erabilera % 15 / euskararen erabilera hizkuntza paisaian: euskaraz % 3,8; elebitan: % 14,6; euskara + beste: % 2,2. Zabaldua dago donostiarren artean hiriko merkataritza erdalduntzen ari deneko pertzepzioa. DEPOren diseinu fasean ere, Bagera elkarteak ezagutzera eman ditu hiriko erdiguneko establezimenduen hizkuntza paisaia neurtzeko egin duen azterketaren emaitzak. Horien arabera, euskara (orekatuta ala ez) euren erakusleihoetan agertzen duten saltokien kopurua ez da laurdenera ere iristen (%22), gaztelania (orekatuta ala ez) erakusleihoen %95ean agertzen den bitartean.

Horregatik, EH Bilduren udal taldeari iruditzen zaio beharrezkoa dela herritarren uste horiek horrela diren ala ez egiaztatzea, eta horretarako, azterketa horiek aproposak izan dira. Jakina, neurketak egitearekin batera, beharrezkoa da herritarrek azterketa horien zehaztasun guztiak eskuratzea, hurrengo lau urteetarako DEPOn proposatu ditzaketen neurriak egokiak izan daitezen hizkuntza paisaian eta erabileran onerako aldaketak lortzeko. Hain zuzen ere, EH Bilduk eskatu du azter dadila gaia Euskara Kontseilu Sektorialean, DEPOren behin betiko onarpenaren aurretik, eta datorren irailaren 15ean egingo da.

Era berean, DEPOren behin-behineko dokumentuak uneko argazkia erakusten du gehiago, garapen edo eboluzio batena baino. Faltan ikusi dugu euskararen ezagutzak egin duen garapena, giza taldeka, arloka, auzoka, baita datu absolutuetan ere. Era berean, txostenak ez du erakusten hizkuntza eskubideen bermearen argazki diakronikorik, ezta erakunde publikoek garatutako politiken baloraziorik ere. Gainera, ez da zehazten zer erabaki, salbuespen edota neurri hartu den hizkuntza araudiari lotuta. Areago, ez du araudia moldatzeko proposamenik egiten, ezta aukera hori aztertzekeo prozesu bat abiatzekorik ere. Aipatu horiengatik guztiengatik, kezka dugu herritar euskaltzaleek aski datu eta zehaztasun ote duten Donostiako euskararen egoeraren inguruan, eta horregatik ere uste dugu are beharrezkoagoa dela herritarren parte hartze zabalagoa.

Ukaezina da, irabaziak bezala, galerak ere baditugula Donostian. Horregatik, EH Bilduren ustez ezin du planaren helburua plana bera izan; hau da, ezin dugu emaitza ezberdinik espero, gauza bera egiten jarraitzen badugu. DEPOren helburua euskararen hiriko egoeran aldaketa positibo esanguratsuak lortzea izan behar du, lan handia egin baitugu denon artean, euskarak espazioa berreskuratu eta irabaz dezan. Horri esker, hiribururik euskaldunena izaten jarraitzen du Donostiak, eta horrek eskatzen digu aurrera jauzi bat eman beharra, anbizioa erakustea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behar den denbora eskaini diezaiola Euskara Kontseilu Sektorialari 2020-2024 epealdirako hiriko Euskararen Plan Orokorren diseinua amaitzeko, aintzat hartuta bere egitekoa, eta neurri eraginkorrenak proposatzeko adina datu eta zehaztasun eskaini diezazkiola.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari erraztu dezala *hiri akordio* bat, zoru komun bat ezarriko duena hizkuntza eskubideen bermea lortzeko eta euskararen garapen bizkorrago bat eragiteko Donostian, eta euskararen hiztun komunitateari bizitza euskaraz, normaltasunez, garatzeko aukera eskainiko diona, hizkuntza eskubideen berdintasunaren printzipioa oinarri hartuta.

Donostian, 2020ko uztailaren 16an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia